


# noaua



## ZIRKUA IRITSI DA HERRIRA!

Izan duen arrakastaren ondorioz, beste bi emanaldi iragarri dituzte igande honetarako / 15

ARGAZKIA: GURE ZIRKUA



UDALA

**Udal aurrekontuen inguruko bilera erronda aste honetan abiatuko da / 06**




USURBIL FT

**Julen Lejardiren senideak: "Egunotan jasotako babesak bihotza bete digu" / 10**



NOAUA

**Azaroaren 26an ospatuko da Erle Eguna, urteko hitzordurik gozoena / 15**



OINATZ TOLEDO

**Donostia-Behobia lasterketa 75 herrikidek amaitu zuten / 20**



**IRTEERA 2024ko apirila**

Noaok gidatutako talde bidaiak.  
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaak.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria



**USURBIL**

O P T I K A

**2x1**

**PROGRESIBO,  
URRUTIKO  
ETA GERTUKO  
BIGARREN  
LENTE PAREA  
DOAN!**



**943 37 02 69**

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

## 2024ko UDAL-AURREKONTUAK AURKEZTEKO BILERAK

**AZAROAK 15**

Santuenea  
Auzo elkartean  
**Kalezar**  
Haur eskolan

**AZAROAK 20**

Txokoalde  
Txokoargin  
**Zubieta**  
Kaxkapen

**AZAROAK 21**

Etxealdia  
Potxoenean

**AZAROAK 23**

Aginaga  
Eliza Zaharrear  
**Atxegalde**  
Udarregiko jangelan

**AZAROAK 28**

Munalurra  
Eguzkin  
**Kaxkoa**  
Potxoenean

\*Bilera guztiak 18:00etan izango dira,  
Aginagakoa izan ezik (18:30)

## Julen Lejardi Araolaza oroitu zuten asteburuko partidetan

Usurbil FT-ko taldeek minutuko isilunea egin zuten iragan astean hildako gazte usurbildarraren oroimenez. Lejardi kide zuen Usurbil Kirol Elkar-teak seniorren partidak bertan behera utzi zituen.

Azaroaren 10ean egin zitzaion azken agurra Salbatore parrokiko hileta elizkizunean. Eta asteburuan, herriko kirol taldeek ere Julen Lejardi Araolaza oroitu nahi izan zuten.



Futboleko kadete neska eta mutilen zein erregionalen taldeko neurketen aurretik minutuko isilunea egin zuten.

### 1972an jaiotako bazkaria azaroaren 18an ospatuko da

Azaroaren 18a, larunbata, 14:30ean bilduko dira bazkaritarako Urmietako Oianumen. Izen-emateko azaroaren 16ra arteko epea finkatu dute. Rural Kutxako kontu zenbaki honetan 50 euroko ekarpena egin eta nork bere izen abizenak adierazi: ES 15 3008 0259 1750 4249 4822.

### 1973. urtean jaiotako kinto bazkaria

"1973an jaio ginenok aurten 50 urte borobil beteko ditugunez, bazkari batez ospatzea erabaki dugu. Azaroaren 25ean Atxega jauregian elkartzekotan gara eta zu ere bertaratzea gustatuko litzaiguke. Izena emateko azken eguna: azaroak 15. Izaro (658 744 904) edo Joseba (661 122 568)".

### 1959an jaiotako bazkaria, azaroaren 18an

1959an jaiotakoek ere iragarri dute beren ospakizun-eguna: azaroaren 18a. Bazkalaurretik ordea, argazkia aterako dute Bordatxo tabernaren atarian, eguerdiko 13:00ean.

Topaketa honetan izena emateko honako telefono zenbakira deitu behar da: 659 139 073.

### 1947ko kinto bazkaria, abenduaren 19an Artzabalen

1947. urtean jaiotakoak Artzabalen elkartuko dira abenduaren 19an asteartea. Hila-bete falta da baina izen-ematea zabalik da dagoeneko. Piliri deitu 678 368 980 telefono zenbakira edo Anari bestela, 637 989 414.

Izena emateko azken eguna abenduaren 17a izango da.

**noaua**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkartea  
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
elkartea@noaua.eus

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkari koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:**  
Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio kontseilua:**  
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,  
Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goiena.  
**Publizitate arduraduna:**  
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321  
publizitatea@noaua.eus  
**Banatzailleak:**  
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 2.980 ale.  
**Imprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu  
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Usurbilgo Udala**

## IRITZIA



ALAZNE ARRUTI

## Lodifobiaz

**O**rain delagutxi, Gazteako Zulora saioan entzundut, emakume askok, haurdunaldian esperimentatzen dutela lehen aldiz tripak aske eta erlaxatuta izatea. Txikitatki, gizarteak, hainbat mezu zuzen eta zeharkako helarazten dizkigu. Eta horietako askok, gorputz konkretu batzuen gainean, are eta zapalkuntza bortitzagoa eragiten du.

Izugarrria da pentsatzea, une oro sabela helduta, kontrolpean, itxurari eusten eduki dezakegula inkontzienteki. Niri esaterako, gertatu izan zait yogako saioren batean. Pixkanaka, behatz puntetatik bururaino, eskaner baten antzera gorputza erreparasatzeko ariketarekin hasi eta sabela aipatzean, ustez aske nuena, benetan askatu behar izatea. Eta ordudanik, nire gorputzaren ustezko egoera naturala, kaletik oinez ibiltzean, aulki batean esertzean, arropa konkretu batzuekin... tentsioan egotera behartzen dudaren jakitunagoa naiz. Baina nondik dator hau guztia?

Haurasko txikitari, pottokoak izan ohi dira, eta grazia egin edo osasuntsu daudenaren itxura dutela esan ohi da. Jan eta lo, beti potolo egoteko garaia dutela, gero etorriko direla gerokoak. Baina zer dator gero? Noiz ebakitzen da samurtasunaren eta presio sozial eta kanonen arteko muga? Noiz bilakatzen da haur baten



"Argaltzeko produktu miragarriak saldu nahi dizkigute une oro".

sabel kanporatua barregarri izatetik epaitua izatera?

Garai bateko marrazki bizidunetan, gorputz lodia zuten pertsonaia asko, zakarrak, gaiztoak, traketsak, ez desiratu edo desiragarriak, baztertuak... irudikatu ohi ziren. Gaur egun, gaiarekiko nahiko aldentuta nagoen arren, ziur nago oraindik normatibitatearen araberrako edukiak gailentzen direla nagusiki. Eta ausartuko nintzateke esatera, gorputz lodien presentzia egon bai, baina aldatu dena egiaz, hauen jarrera edo izateko modua izan dela oro har. Besarkagarriak, babesleak, bihotz onekoak... izango dira akaso,

**"ETA ZUK, SARITZEN DUZU ZURE BURUA BASKULAREN GAINEAN PISUA GALDU DUZULA IKUSTEAN?"**

baina ez protagonisten adinako konplexutasun edo garrantzia dutenak. Agian oker nabil.

Dena den, guztiok dakigu gaia ez dela bertan amaitzen. Gaur egun, sare sozialek duten presentzia kontuan izanda, serie edo pelikulez haratago indarkeria izugarria jasaten dugu etengabe. Argaltzeko produktu miragarriak saldu nahi dizkigute, dietaren kultura sostengatu nahi dute interes ekonomikoen eraginez, eta argaltasunaren pribilegioa elikatzen dihardute eta dugu, une oro.

Eta zuk, saritzen duzu zure burua baskularen gainean pisua galdu duzula ikustean? Zigortzen duzu zure burua oporren ondotik, erlaxatuta, gozatzeari emana egon ostean? Zein gorputz mota desiratzen dituzu? Zein aurreiritzi edo epai gauzatzen dituzu besteekiko? Zein lotura egiten duzu gorputzaren itxura fisikoa eta osasunaren artean?

## Santa Zezilia eguna

Musikarien eguna ohi bezala kalean herriarekin biziko du Zumartek datorren azaroaren 23an, Euskal Herri mailako Musikalean ekimenarekin.

### Azaroak 23, osteguna

- 18:00 Kalejira: "Musikalean" kalejira egingo da talde instrumentalarekin.
- 19:00 Kontzertua Sutegiko auditoriumean instrumentu eta talde desberdinekin. Sarrera: doan.

## Antzerki Topaketak Sutegin

Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkartearen eskutik, Antzerki Topaketak datorren aste hasieran Sutegiko auditorioan:

### Azaroak 21, asteartea

- 16:30 Zumarragako eta Oñatik antzerki taldeak.

### Azaroak 22, asteazkena

- 16:30 Eibar eta Donostiako antzerki taldeak. Antolatzailea: Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkartea (AGIJUPENS).

## Barreterapia Santuenean

Azaroaren 25ean, 10:30-12:30 artean, Santueneko Gure Txikiak ludotekan. Sarrera, 6 euro. Herrikerideek izango dute lehentasuna.



### 30era bidean: Zorionak eta aurrera Aitzaga!

JON AIZPURUA ESNAOLA

30 urte! Erraz esaten da! Ume koxkorra nintzen Aitzaga zabaldu zenean eta oraindik gogoan daukat egun hura. Baita aurrekoetan aitarekin bertara egindako hamaika bisita ere. Gogoan bertako hainbat pasadizo, hainbat herritarren itzuleran beste hainbeste argazki kendu direla hango hormetatik eta zenbat besarkada, eztabaida eta laguntasun uztartu diren bertan.

Ez da dena ederra izan, Euskal Herriaren beste hainbat elkartek bezala, espainiar legeen jazarpena eta mehatxua behin baino gehiagotan jasotzea egokitu baitzaio Aitzagari, tartean 6 urtez itxita egotea ere bai. Usurbilen ordea, beti,

elkartasun uholdea jaso izan du. Garai hobeak eta aldrebesagoak izanagatik, Aitzaga, herriaren bihotzean bizirik eta aktibo mantendu izan da.

Eta hala, 30 urte beranduago, herriaren sustraiturik dagoen proiektua da. Azken urte honetan gainera, erabat indar berrituta dagoen proiektua dela ikusteak poz ikaragarria sorrazten digu bertakooi. Aitzaga kudeatzeko talde berritu bat gogotsu, ideiaz lepo eta eten gabe lanean eta Aitzaga Kultur Elkartea ere iturri berrietatik edaten. Goraipatzekoa benetan hainbatek erakutsi duten prestutasuna auzo lanean, bakoitzak beretik, ekarpenak egiteko, ekiteko, nor bere zilborra besterik begiratzen ez duela hainbatetan entzuten dugun egun hauetan. Berondeizuela!

Kide berriak ere hurbilduz doaz Aitzaga Elkartera (badakit taldetxo bat ere kanpaina egiten dabilela eta bazkide izateko informazioa nahi duenari 697 79 79 41 zenbakia helarazteko eskatu didate. Animatu beraz eta zatoz!) eta aita-alabak, amona-bilobak, lagun kuadrillak edo hainbat ekimen sustatzaile bertan, sutondoan edo mahai-inguruan ikusteak erakusten digu bidean egotea soilik ez, bidean parte izatea ere ederra dela.

Adin guztietako herritarrak dabilza bertan, bai elkartean, bai mugimendu politiko, kultural eta sozialetan, bai tabernan... herrigintzan. Altxor bat da, ezbairik gabe. Eta hala izaten jarrai dezan konpromezua hartu dugu, gutxienez, beste hainbat urtez. Sortu zenutenekin, dihardugunokin eta etorriko direnekin: Aitzaga aurrera!

### San Tomas azokarako sagardoa eta babarruna ekartzeko egunak

Babarrun zein sagardo lehia-ketak dira San Tomas azokako pizgarri nagusienak. Hilabete falta da oraindik (abenduairen 17an ospatuko dugu Usurbilen), baina ekoizleek kontuan hartu beharreko datuak dira hauek.

Babarruna eta sagardoa NOAUA! Kultur Elkarteko bulegora ekarri behar dira.

Babarrunaren kasuan, parte hartzaile bakoitzak kg1 babarrun aurkeztu behar du eta trukean 12 euro jasoko ditu.

Sagardogileen kasuan, parte bakoitzak 8 botila aurkeztu beharko ditu eta botila bakoitzeko 1,5 euro pagatuko zaio.

Babarruna zein sagardoa ekartzeko, egun eta ordu hauek ahalbidetu ditugu:

#### Azaroak 27, 28, 29

Ordutegia: Goizez, 8:00-13:00. Arratsaldez, 16:30-18:30.

#### Abenduak 11, 12, 13

Ordutegia: Goizez, 8:00-13:00. Arratsaldez, 16:30-18:30.

### Xumetik jaialdian eginiko buztinezko piezak eskuragarri daude

Buztinzulok zabaldu du oharra: "Xumetik jaialdian egin zenituzten buztinezko piezak jaso ahal izango dituzue azaroaren 21ean eta 28an arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara Buztinzuloko lokalean (Atxegaldeko Alperroburu kalean). Zain izango gaituzue!"



ARGAZKIA: DANI BLANCO, ARGIA

### Biharko eguna ulertzeko gakoak bilduma bat

Pello Zubiria Kaminok 'Planeta Prekarioan. XXI. mendeko krisi eta erresistentzien kronikak' izeneko liburua aurkeztu

berri du. Aginagako kazetariak Argia astekariko Net Hurbil sailean idatzitako ehunka artikuluak aukeraketa bat da.

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
eguneko menua · asteburuko menua  
oilasko erreak, ogitarkekoak, raziok...  
paellak enkarguz!  
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42

Zuen  
publizitatea  
hemen  
943 360 321  
publizitatea@noaua.eus

**ZENDOIA**  
**ENE** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil

# Udal aurrekontuen inguruko bilera erronda

2024ko udal aurrekontuen inguruan hainbat bilera egingo dira datozen egunetan

Azaroaren 15etik 28ra bitartean bederatzita hitzordu iragarri dira guztira. Gauzak ondo bidean, 2024. urteko udal aurrekontuen tramitazioa abenduan hasiko da. Udal gobernutik aditzera eman dutenez, aurrekontuetako proposamenak azaltzeaz gain, "herri zein auzoetako beharrez hitz egiteko" baliatuko dituzte bilera hauek.

## Ekarpinak egiteko aukera

Aurrekontu proposamenez hitz egiteko xedearekin, EH Bilduk gidatzen duen udal gobernuak hainbat bilera iragarri ditu. Hitzordu hauetan, tokian tokiko beharrak eta proposamenak lantzeko aukera egongo da. Beste urte batzuetan bezala, "udal-go-

bernuak aurrekontuen proposamen zirriborroa osatu, eta ekarpinak egiteko aukera zabalduko du bertarutzen diren artean".

## Abenduko plenoan tramitatuko dira

Oposizioko talde politikoekin bezalaxe, herritarrekin ere partekatu nahi ditu bere egitasmoak. Batzuekin zein besteekin batu ondoren, udal aurrekontuen azken proposamena idatziko du Agurtzane Solaberrietak gidatzen duen lan-taldeak.

Okerrik ez bada, abenduko osoko bilkuran landuko da proposamena, eta pleno horretan bertan hasieraz onartuko litzateke 2024ko udal aurrekontua.



Hitzordu hauetan, tokian tokiko proposamenak lantzeko aukera egongo da.

## Egutegia

### Azaroak 15 asteazkena:

- Santuenea (frontoi ondoko lokalean).
- Kalezar (Haur Eskolan).

### Azaroak 20 astelehena:

- Txokoalde (Txokoargin)
- Zubieta (Kaxkapen).

### Azaroak 21 asteartea:

- Etxealdia (Potxoenean).

### Azaroak 23 osteguna:

- Atxegalde (Udarregiko jangelan)
- Aginaga (Eliza Zaharrean).


### Azaroak 28 asteartea:

- Kaxkoa (Potxoenean).
- Munalurra (Eguzkin).

Oharra: Bilera guztiak 18:00etan izango dira, Aginagakoa izan ezik (18:30).

## Garbigune mugikorra Kaxkoan izango da egunotan

Azaroaren 16tik aurrera, garbigune mugikorra Kaxkoan izango da. Era honetan, etxe-kondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Azaroaren 23an osteguna, garbigunea Aginagara eramango dute.



Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe.

## 'Hiru kortse, azukre asko eta Brandy gehiegi' antzezlanaren antzezlana Sutegin

Kamikaz Kolektiboak 'Hiru kortse, azukre asko eta Brandy gehiegi' antzezlanaren eskainiko du igande honetan, Sutegin. Parekidetasun Sailak antolatu du ekitaldia eta 19:00etan hasiko da. Gonbidapenak aurrez eskuratu ahalko dira usurbil-kultura.eus plataforman.



Igande honetan, arratsaldeko 19:00etan hasiko da antzezlana.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
TABERNA  
• PLATER KOMBINATUAK  
• BOKATAK • PINTXOAK  
Kontzeju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Patxi**  
PARRIKAZ  
JATEXEA  
• bazkariak EGUNERO  
• afariak ostirala eta larunbata  
© 943 362725 • © 688 690 361

# Aginagako Euskararen Egunaren bueltako ekitaldietarako sarrerak eskuragarri

Abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan, bi hitzordu antolatu dituzte Aginagako Eliza Zaharrean abenduko lehen astebururako.

Hasteko, hilaren 2an, azken urteotan antolatu izan duten Euskararen Gala ospatuko dute gaueko 22:00etan hasita. "Korbata eta pamelak prest? Hemen da berriz ere Euskararen Gala!!", gogorazi dute antolatzaileek. Iragarri dutenez, "sekulako gonbidatuz betetako saioa izango dugu aurten goa ere... ondo pasatzeko prest?". Hitzordua iragartzeko kalera-tu duten kartelean irakur daitekeenez, bertan parte hartuko dute Rafa Ruedak, Mikel Markezek, Yogurina Borovak, Idoia Torregaraik,

Ana Goitiak, Asier Kidamagoak...

Adi, askotariko emanaldiez hornituko duten Euskararen Galarako sarrerak Arrate tabernan edota online, usurbilkultura.eus plataforman erosi ahalko dituzue. "Azkar ibili!!", deitu dute antolatzaileek.

**Abenduaren 3an, Xentimorik Gabe taldearen antzezlana** Biharamunean, hilaren 3an, Xentimorik Gabe taldearen "Gu Primer!" antzezlana programatu dute Aginagako Eliza Zaharrean 18:00etan,



Inazio Tolosa, Nerea Gorriti eta Ramon Agirre Aginagako Eliza Zaharrean izango dira abenduaren 3an.

Ramon Agirre, Inazio Tolosa eta Nerea Gorriti aktoreekin. Asier Sotak zuzendu eta Agirrek nahiz Egoitz Lasak asaturiko antzezlanean, Tolosa eta Agirre "Parisen" bizi dira, Artistaren Etxean. Bertan, lanean hasi berri den Nereak, "programa" bat pres-tatu du gure bi lagunentzat: Kontzertu sorta eskainiko

dute non bere erreperitorio eta bizipenak kantu-kontaktuko baitituzte. Gaurkoan balentria handi baten berri emango dute; ez amerikarrak, ez errusiarak, bi euskaldun izan ziren ilargira iristen lehenak. Gu primer!". Sarre-rak usurbilkultura.eus plataforman eskuratu ahalko dituzue.



'Hopper, oilasko erbia' filma eskainiko dute azaroaren 26an Sutegin.

## Haurrentzako neguko zine zikloa bueltan

Euskarazko haurrentzako zine zikloa azaroko azken igandean itzuliko da Sutegira. "Hopper, oilasko erbia" filma proiektatuko da azaroaren 26an 17:00etan Sutegiko auditorioan.

Ohi bezala, Usurbilgo Udalak eta Ziortza Gazte Elkarteak antolaturiko proiektiorako sarrerak 3 eurotan eskuratu ahalko dira aurrez usurbilkultura.eus plataforman.

### Abenturazale ospetsua

Sinopsia: "Hopperren, Pedro erregearen seme adoptatuaren istorioa kontatzen du filmak. Erdi oilasko eta erdi erbi jaio zen abenturazale ospetsua. Ezberdintasunak alde batera utzita onartua izateko irrikaz, Hopper abentura zirraragarri batean murgilduko da bere zerbitzari leial Abe dortoka sarkastikoarekin eta Meg borroka-arteetan aditua den mofeta ausartarekin batera, Iluntasunaren Hamsterra izenez ezagutzen den erlikia gutzitiuaren bila. Hirurek erronka handi bati egin behar diote aurre, Lapin baino lehenago iritsi behar dutelako, duela gutxi kartzelatik ihes egin duen bilau bat, erresumako bakea mehatxatzen duena".

### "Giltza izatea dagokigu"

Sareren hileroko azken ostiraletako mobilizazioa azaroaren 24an izango da, iluntzeko 20:00etan Mikel Laboa plazan. Gogoan izan, urriko elkarretaratzean, hainbat eragileek eta norbanakok Gernikan aurkezturiko 'Konponbiderako Giltzak' manifestua plazaratu zuten. "Giltza izatea dagokigu eta, horretarako, datozen hilabeteetan, "Konponbiderako Giltzak" manifestuaren hedapean eta konpromisoan aktiboki parte hartzea animatzen zaituztegu", deitu zuten urriaren 27ko elkarretaratzean. Saretik nabarmendu dutenez, "guztiok gara giltza konponbidearen eta bizikidetzaren ateari parez pare irekitzeko".



Maulen hasi zuten azken bira eta Usurbilen amaituko dute. "Seigarren urtea osatu dugu eta sekulakoa izan da".

# "Gure Zirkuaren saioetan komunitate giro bat sortzen da"

**IKER GALARTZA** AKTOREA, PAILAZOA ETA GURE ZIRKUKO KIDEA

Gure Zirkuaren seigarren denboraldia Usurbilen amaituko da. Asteburu honetan eskainiko dituzte azken funtzioak. Iker Galartzak adierazi digunez, "herri guztietan oso harrera ona egin digute".

**Seigarren bira amaitzear dela iritsi zarete Usurbilera. Lehen asteburua egin duzue Usurbilen. Nolakoa izan da orain arteko harrera?**

Oso ona, oso ona. Etorrtzen da jendea Usurbildik, Lasartetik, Hernanitik, Donostiatik... Erdi-erdian gaude eta ez da herri txiki batera joatea bezala, baina era berean ederra da. Pluraltasun handia dago gainera. Etorकिनak daude, bertako jendea... Eta hori oso aberatsa da.

**Funtzio batzuetan sarrerak agortu egin dira baina besteetan oraindik bada txartelik eskuratzeko aukera, ezta?**

Hala da. Eta hortxe gaude, azaroaren 19an beste bi ema-

naldi jarriko ote ditugun (azaroaren 9an egina dago elkarrizketa).

**Igande honetan, alegia.**

Hori da. Beste batzuetan, igande hori desmuntatua egiteko baliatzen dugu; astelehenean hurrengo herrian muntatu ahal izateko. Usurbilgoa birako azken geltokia denez, ez dugu halako presarik, eta igandean beste bi emanaldi egitekoak gara.

**Sarrerak nola eskura daitezke?**

Interneten (gurezirkua.eus web orrialdean), baina emanaldi egunetan leihatilan 30-40 sarrera gordetzen saiatzen gara beti.

**Beraz, karpako saltokian ere eskura daitezke?**

Bai, baina gerta daiteke ostiralean leihatila irekitzerakoan, jendeak larunbaterako eta iganderako sarrera denak erostea. Dena den, normalean beti edukitzen ditugusarrera batzuk

**"SEIGARRIN BIRA HONETAN PUNTARIK PUNTA IBILTZEKO ABILIDADEA, ADOREA, INDARRA ETA ENERGIA IZAN DUGU"**

hemen salgai. Mundu guztia ez da Interneten moldatzen eta horiei ere zerbitzua ematen saiatzen gara.

**Aurreko denboraldietan egon dena eta aurtengoan etorri edo ez etorri, zalantzan dagoenari, zer esango zenioke?**

Ba harrituko dela. Iaz, inguru hauetan ibili ginenean ikuskizuna ezberdina zen. Gainera, hemen egiten ari garen hau ez dugu inguru honetan berriro egingo. Birako azken saioak direlako hauek.

Beti saiatzen gara sorpresa berriak txertatzen. Eta honakoan ere, ikusleek esketx berriak, numero berriak, abesti berriak... topatuko dituzte. Ez dugu ikuskizuna erabat berri-tu, baina berrikuntzak egon badaude.

**Udaberrian hasi eta udazkenera bitarte irauten du zuen birak. Zer nolakoa izan da aurtengoa?**

Ikaragarria. Seigarren urtea osatu dugu eta sekulakoa izan da. Maulen izan gara, Portugaleten, Tafallan... Eremu oso euskaldunetan ere aritu gara: Elorrión, Markinan, Lazkaon, Usurbilen... Puntarik punta ibiltzeko abildadea, adorea, indarra eta energia izan dugu.

**Euskal Herri osora iristeko ahalgina egin duzuela esan daiteke.**

Bilboko Ezkerralde horretan izan gabe ginen. Lapurdin ibiliak izan gara baina Zuberoan ez, eta ez da gauza bera Lapurdira edo Zuberoara joatea. Gure Zirkuak badaki apustuak ere egin behar dituela. Ezin gara beti Tolosa, Orio, Arrasate edo Durangon ibili. Baina ahalegin horiek neurrian egin behar dira, ze *takilla* ere atera behar da.

**Duela sei urtetik hona gauzak asko aldatu dira. Egungo karpa handiagoa da, taldekide berriak dituzue orain. Eta sarrerak, lehen baino gehiago saltzen dituzue orain.**

Egia esan, ez genuen uste horrenbesteko arrakasta izango





"Gure Zirkua eskaintza artistikoa kalitatezkoa dela esaten digute eta hori ere oso garrantzitsua iruditzen zait".

→ genuenik. Lana egingo genuela imajinatzen genuen, euskaraz ez zegoelako horrelako eskaintzarik. Gogoia jarrita, zerbait polita atera zitekeela bagenekien.

Orain batetik bestera gabil-tza. Harmailak ez dira toki guztietan betetzen. Baina hori ere bada Gure Zirkua, eta jarrai dezala horrela.

### **Izango da urtero-urtero hurbildu denik. Fan fenomenorik iritsi al da Gure Zirkura?**

Urtero hiru etalau aldiz etortzen direnak ere bada! Aurrekoan ume bat haserre atera zen. Eta nik amari, zergatik haserretu da ume hau, eta amakerantzun: "bukatu egin delako!". Ba etorri berriz!, erantzun nion.

### **Gure artean aurrekaririk ez da goenez, Gure Zirkurako jendea topatzea ez da erraza izango, ezta?**

Erronka handia da. Hasi gine-nean, baziren euskaldun batzuk, Iraitz edo Ane Miren adibidez, zirkua egiten aritutakoak Edin-burgen, Londresen, Bartzelona-n, Madrilan... Zirkua erekin hasi gine-nean, jende hori gerturatzeko hasi zitzaigun. Baina Ane Miren kontortsionistak adibidez, 49 urte ditu eta kos-

ta egiten zaio. Zorionez, Lur Aranburu 19 urteko ondarratara etortzen zaigu orain. Baina ez, ez da erraza artistak topatzea. Malabarista bat edo kontortsionista bat aurkitzea ez da lan erraza.

### **Zirkua lengoia unibertsa da, baina nire lagun batek dio bere euskalduntasuna indartuta ateratzen dela Gure Zirkuan.**

Bai, egia da. Porrotzek ere antzekoa esaten zidan, komunitate giro bat sortzen dela eta euskalduntasuna indartuta ateratzen dela. Zure laguna harro egongo da gainera, euskaldunok egingo delako. Kalitatezkoa ere badela diote eta hori ere oso garrantzitsua iruditzen zait. Nik ez dut ezer barkatzerik nahi. Egiten duguna saia gaitzean ondo egiten;

**"DUELA SEI URTE GURE ZIRKUA REKIN HASI GINENEAN, EZ GENUEN USTE HORRENBESTEKO ARRAKASTA IZANGO GENUENIK"**

saia gaitzean ikusle goari ahaliketa kalitate onena eskaintzen.

Bestalde, euskalduna ez den jendea ere bizi da Euskal Herrian. Eta etortzen direnean ondo pasatzen dute. Euren ez den hizkuntza batean aritzen gara baina ezaguna zaie, eta belarritik gozo-gozo sartzen zaie. Aurreko asteburuan, turbantea buruan zuten batzuk *Kalean gora, kalean behera* dantzatzen ikusi nituen. "Hauk ere pozik aterako dira hemendik", pentsatu nuen. Andaluziar bat ere etorri zitzaigun emanaldi amaieran zoriontzera. Ez zuela euskaraz hitz egiten baina asko gustatu zitzaiola. "Me he perdido alguna cosilla pero se entiendo todo", esan zigun. Hor ikusten da hizkuntza ez dela arazo bat.

**"UMEEK BEZAIN ONDO PASATZEN DUTE HELDUEK. GAZTE JENDEA 'KALEAN GORA, KALEAN BEHERA' ABESTEN IKUSTEA EDERRA DA"**

**Asko eta asko familian hurbiltzen dira baina gazte kuadrillak ere etortzen dira, ezta? Adin guztietarako egokia den seinale.**

Halaxe izan behar du gainera. Batzuk ume txikiekin hurbiltzen dira lehen aldiz. Bi urteko ume bat adibidez, momenturen batean aspertu egin daiteke eta akaso haien abesti gehiago eskaini beharko genituzke, baina guk geureari eutsi behar diogu: kalitateari, numeroei eta espektakuluaren osotasunari. Umeengatik ez dugu infantilago egin behar, dakigun hori egiten jarraitu behar dugu, eta kito.

Ostiral iluntzeko emanaldiak adibidez, oso ondo ateratzen dira umeek extra eskolarrak dituztelako. Emanaldi horietan bikoteak eta kuadrillak etortzen dira batez ere. Jende horrek ikasi baitu larunbatean 16:30eko saiora ez duela etorri behar.

### **Eta umeek bezain ondo pasatzen dute helduek.**

Hori bai dela ederra. Gazte jendea *Kalean gora, kalean behera* abesten ikustea.

### **Umetu egiten dira, nolabait esatearren.**

Bai ba! Aste guztiko lanak eta estresak gaitetik kentzeko bali die.

## **Gure Zirkua Usurbilen**

### **Azken saioak:**

Azaroak 17 ostirala:  
-19:00etan. Agortuta.

Azaroak 18 larunbata:  
-16:30etan. Agortuta.  
-19:00etan. Agortuta.

Azaroak 19 igandea:  
-12:00etan.  
-17:00etan. Agortuta.

**Sarrerak eta informazio osagarria:**  
gurezirkua.eus

# Julen Lejardi Araolaza gogoan

Tristura eta samin handia eragin du Julen Lejardi Araolazaren heriotzak egunotan Usurbilen. Urriaren 7an izan izan zuen ezbeharrean larriki zauritu ostean, iragan azaroaren 8an hil zen 20 urteko gaztea.

Bere heriotzaren berri izan genuenetik han eta hemen Lejardi Araolazaren aldeko hainbat oroimen ekimen egin dira, izan mezuen nahiz egin diren ekin-tza hunkigarrien bidez ere.

Ostiral iluntzean egin zitzaion azken agurra Salbatore parro-kiko hileta elizkizun jendetsuan. Aurretik, Udarregi ikastolan gogoan hartu zuten "Julen gure ikasle-ohia, entrenatzailea, begiralea eta laguna! Lore hau landatuko dugu bere oroitzapen eta maitasuna bizirik mantentzeko. Eskerrik asko Julen, eman diguzun guztiagatik!", adierazi zieten eraikin gorriko erdiko aretoan jarri zuten lorearen bueltan bildutako kideek.

Ikastolak aipatu moduan, besteak beste, kirol arloko jardunarekin lotura estua zuen zendu berri den gazteak, bereziki Usurbil Kirol Elkartearekin bai berak eta bere familiak. Bere heriotzaren berri izan ostean, sare sozialen bidez ere samina adierazi eta babesa helarazi nahi izan zieten eskubaloi elkartetik gaztearen senide eta lagunei. "Atzokoa oso egun gogorra izan zen, izan ere, Usurbilgo zeru gainean beste izar bat piztu zitzaigun. Julen Lejardi Araolaza atzo zendu zen 20 urte zituela". Une honetan, "familia, lagun, klub eta herri-ri utzitako hutsune latz hau beteko duenik ez dago; horixe da bere gizatasunaren adierazlerik handiena. Besarkada goxo bat helarazi nahi diegu bereziki familia eta gertuko lagunei".

Era berean, eskerrak helarazi nahi izan ditu elkarte honek jasotako animu eta babes mezuengatik. "Usurbil Kirol Elkar-



Usurbil KE taldeak, besteak beste, "azaroaren 9ko CD Bidasoa Irun-en partidan eginiko minutuko isilunea eskertu nahi du". ARGAZKIA: @USURBILKE TWITTER KONTUA.

retik gure esker ona adierazi nahi dugu une gogor honetan jasotako indar eta babes mezuengatik. Entrenatzaile, jokalar, klub zein Gipuzkoa eta Euskadiko federazioetatik jasotako mezuak askotarikoak izan dira", ohartarazi du elkar-teak sare sozialen bidez. Ildo horretan, "bereziki eskertu nahi dugu atzoko egunean Bidasoa Irun partidan eginiko minutuko isilunea. Dakizuenez dago min hau baretuko duenik, baina bihotzez mila esker arintzen saiatu izanagatik".

## Minutuko isiluneak

Iragan astebururako eskubaloi taldeen bilguneak iragarriak zituen senior neska eta mutilen taldeen partidak bertan behe- ra uztea erabaki zuten. Erabaki hori hartzeko eskainitako laguntzagatik ere eskerrak helarazi dizkiete Usurbil K.E.tik "bai BM Corazonistas zein Eragin Orio eskubaloi taldeei". Eta azkeneko eskertza, egunotan omendu den gazteari. "Maite zintugulako eta maita-

tzen jarraitzen zaitugulako. Eskerrik asko Julen!!".

Usurbil Futbol Taldea ere oroimen deialdi honetara batu da. Haranen jokaturako partidetan minutuko isilunea egin zuten, kadete neska eta mutilen eta erregionalen taldeko neurketetan besteak beste.

## "Bihotza birrinduta dugu"

Julenen aldeko hileta elizkizuna egin zuten egunean hainbat eskela argitaratu zituzten bere senide eta lagunek, baita Usurbil K.E.-k ere. Oroimenerako bide ezin egokiagoan bilakatu ziren. Haietako batean nabarmendu zuten, "ikasketetan abila, jende artekoa, dantzari fina eta eskubaloian dena ematen zenuena", hitz hauekin

## "MILA ESKER DENEI MIN HAU ARINTZEN SAIATU IZANAGATIK"

USURBIL KIROL ELKARTEA

oroitu eta omendu nahi izan zuten bere senide eta lagunek. Bere umorea eta prestasuna ere goraipatu zuten beste eskeletako batean. "Zure esku-baloiko familiak ez zaitu ahaztuko", adierazi zioten Usurbil K.E.-tik.

Azken eskela, Euskal Herriko Unibertsitateak plazaratu duena izan da. EHU-ko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko ikaslea zen Julen. "Fakultateko Dekanoak eta kide guztiok gure dolumina adierazten dugu eta galera samin honen aurrean bat egiten dugu familiaren sentimenarekin", adierazi nahi izan diete Lejardiren hurbilekoei.

Bere babesa agertu nahi izan die senide eta lagunei Usurbilgo alkateak. "Bihotza birrinduta dugu, haserre, minez, amorrus, penaz. Horixe da une honetan usurbildarron sentimendu orokortua. Besarkada handi bat familiari, lagunei eta, oro har, herriko gazteei. Lurrak goxo har zaitzala, Julen!".

## Familiaren eskertza

Egunotan egindako oroimenerako hitz eta ekintzen lagin bat baino ez da lerrootan azaldu duguna. Ezin denak aipatu baina denak eskertu nahi dituzte Julenen senideek. "Jasotako erantzunak txundituta utzi gaitu", adierazi nahi dute bere anaiak eta gurasoek NOAUA! bidez.

Inor ahaztu gabe herri osoa eskertu nahi dute jaso duten babesagatik. "Une zail hauetan jasotako babesak bihotza bete digu", helarazi nahi izan dute. Eskerrik beroena helarazi nahi diete denei.

# BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe



**ERRIGORAKO PRODUKTUEN**  
**Bi saski**  
**zozketatuko ditugu**  
**NOAUA!ko bazkideen artean**



Bazkide egiten bazara, zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

## noaua.eus

Herriko berriak beti soinean

Albisteak, argazkiak, bideoak,  
 agenda, zorion-agurrak,  
 eguraldia, aldizkaria online...  
 Klik batean den-dena ikusgai zure  
 eskuko telefonoan, tablet-ean  
 edo ordenagailuan.



# Milaka lagun, osasun publikoaren defentsan

Milaka lagun mobilizatu ziren EAE-ko hiriburuetan azaroaren 11n, "Osakidetzaren etengabeko desegitea salatzeko".

Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformek deitutako mobilizaziotan adierazi zutenenez, "geroz eta kezkatuago gaude gure osasun sistemak pairatzen duen egoera larriagatik". Testuinguru horretan salatu zuten, "nekatuta gaude arazoa profesionalen falta dela entzuteaz, benetako arazoa berariazko planifikazio eza eta zerbitzuen desegitea izan deanean".

## Eredu aldaketa eske

Osasun zerbitzu publikoek egun bizi duten arazoan jatorrirra jo beharra azpimarratu

zuten Donostian. "Osasun publikoa indartzea, sendotzea, hori da benetako inbertsioa", galdegin zuten. Porrot egin duen zaintza sistemaren aurrean, manifestaldiko deitzaileek Osakidetzak bizi duen egoerarentzako konponbidea plazaratu zuten. "Herritarrok argi dugu irtenbideak publikoak, duina eta integrala behar dela izan. Ezin dugu onartu zaintza ere enpresa pribatuentzat negozioa izatea. Soberan dabilgu enpresa baten irabaziak proportzionalak direla herritarrei eskaintzen dien zaintza kalitate mailarekin", salatu



Osakidetzaren pribatizazioaren aurka agertu ziren manifestariak. NOAUA!

zuten. Osasun publikoaren-  
tzako eredu berria proposatu  
dute egunotan opaherriplata-  
formak.eus atarian kaleratu  
duten manifestuan. Milatik  
gora atxikimendu bildu dituz-  
te web orri horretan bertan.

Antolatzaileek adi egoteko  
deia egin zuten. Euskal Herri-  
ko Mugimendu Feministak  
azaroaren 30eko deitua duen  
zaintza eskubide kolektiboaren  
aldeko greba orokor femi-  
nistarekin bat egin zuten.



Osakidetzan aplikatzen ari diren murrizketak salatu zituzten. NOAUA!



Eskualde ezberdinetatik etorritako milaka herritar batu ziren Donostian. NOAUA!



Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformek deitu zuten manifestazioa. NOAUA!



Hainbat eragileek bat egin zuten deialdiarekin, tartean pentsiodunek. NOAUA!



Nerea Mendizabalek 'Gatazka, ataska edo aska' saioa eskaini zuen Sutegin.



Gari & Maldanbera taldeak hasi zuen Kulturaldiko azken asteburua. NOAUA!



'Kanpora sartzen' antzezlanak Sutegi goraino bete zuen. NOAUA!



Errio bueltako kontakizuna ekarri zuen Sutegira Ixabel Agirresarobek. NOAUA!

## San Tomas lehiaketan parte hartzeko deialdia



### Informazioa eta epea:

Babarrunak eta sagardoak Noau!ra ekarri eta izena emateko datak:

**AZAROAK 27, 28 eta 29**

**ABENDUAK 11,12 eta 13**

**ordutegia 8:00-13:00 eta 16:30-18:30**

### Babarrun lehiaketa:

Ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

- **ITXURA:** osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...
- **KOLOREA:** zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.
- **BERDINTASUNA:** tamainaz, kolorez...elkarren berdinak izatea.
- **DIZDIRA:** berezko dizdira beste edozein produktuekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.
- **GARBITASUNA:** partikula arrotzik ez izatea.

Parte hartzaile bakoitzak 1Kg babarrun ekarri behar du eta 12 € ordainduko zaio.

### Sagardo lehiaketa:

Sagardoa etxean egiten duen usurbildarrek parte hartu ahal izango dute.

(Sagardotegiek ezin dute parte hartu lehiaketa honetan).

Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5€ ordainduko zaio.

Informazioa: Noau!ko egoitzan eta 943 36 03 21 telefonoan



**noau!**

# Palestinaren aldeko mobilizazio ugari egin dira egunotan

Palestinari elkartasuna adierazi eta Gazako sarraskia geratzea eskatzeko deialdiak ugaritu egin dira azken egunotan.

Palestinari elkartasuna adierazi eta Israel Gazan eragiten ari den genozidioa berehala amaitzea eskatu zuten azaroaren 7an Euskal Herriko hainbat eta hainbat herritan egin bezala, Gernika-Palestina Deialdi Herritarrarekin bat eginez Usurbilgo udaletxe atarian antolaturiko elkarretaratzean.

"Gatazka honi konponbide justu eta demokratikoa" ematea ezinbestekotzat jo zuten, elkarretaratze isilaren amaieran. "Ezein erasok ez du justifikatzen Israel Palestinako herriari aplikatzen ari zaion zigor kolektiboa", nabarmendu zuten antolatzaileek irakurritako adierazpenean. Konponbidea "Nazioarteko Zuzenbidean eta NBERen ebazpenen betearazte zorrotzean oinarritu behar da" gaineratu zuten.

Bide horretan, "okupazioari amaiera eman eta Palestinaren autodeterminazio es-

kubidea" bermatzea ezinbestekotzat jotzen dute. "Uste dugu 75 urtez luzatu den gatazka honetan bakea lortzeko modu bakarra Palestinako herriak giza eskubideen, duintasunaren eta nazio eskubideen alde dituen bidezko nahiak betetzea dela". Prozesu horretan, nazioarteko erakundeen laguntza exijitu zuten. "Genozidio honekin bukatzeko beren esku dagoen guztia egin dezaten interpelatzen ditugu".

## Michelineko langileak, lantokiaren atarian

Palestinari elkartasuna adierazi eta haien aurka Israel eragiten ari den genozidioaren aurka mobilizatu ziren egun berean ikastetxe eta lantegietan aipatu eragileak deituta.

Palestinari elkartasuna adierazi, Gazako sarraskia geratzea eskatu eta konponbide politikoaren alde egiteko Euskal Herri mailako deialdiarekin bat egin zuten udalderri hone-



Palestinako banderak eta Gernika-Palestina Deialdi Herritarrak eginiko deialdiaren kartelak eskuartean zituztela atera zuten talde argazkia Udarregin.

tan ere. Bi adibide lerrootan; batetik, Michelin lantegiko langileek eginiko mobilizazioa. "Michelinen ere, sarraskia

geratu! Palestina askatu!" galdegintan zuten.

## Udarregiko irakasleak, ikastolaren atarian

Bestetik, Udarregi ikastolako irakasleek ere beste hainbeste egin zuten ikastola atarian. Palestinako banderak eta Gernika-Palestina Deialdi Herritarrak eginiko deialdiaren kartelak eskuartean zituztela atera zuten talde argazkia.

## "GATAZKA HONI KONPONBIDE JUSTU ETA DEMOKRATIKOA EMAN BEHAR ZAIO"



"Okupazioari amaiera eman eta Palestinaren autodeterminazio eskubidea bermatzea" ezinbestekotzat jo zuten elkarretaratze amaieran. NOAUA



Michelin lantegiko langileek eginiko mobilizazioa. "Michelinen ere, sarraskia geratu! Palestina askatu!" eskatu zuten. MICHELINGO LAB SINDIKATUA.



2019ko azken Erle Eguneko saritu taldea. Datorren edizioa ere txapelketek girotuko dute, tartean, edonork parte hartu ahalko duen gozogintzako lehiaketak. NOAUA!

# Urteko hitzordu gozoena bueltan da

2019an izan genuen azkenekoz haien berri. Lau urteko etenaldiaren ostean, indarberrituta datozela adierazi diote NOAUA!ri Erle Lagunak taldekoek. Azaroko azken igandean, hilaren 26an, Usurbilgo hitzordurik gozoena plazaratzeko irrikitan dira.

Hamaika osagai izango ditu ate joka dugun 22. Erle Egunak eta mezu argi bat; erleak geure ingurumenarentzat gako duen zeregina ezagutarazi eta bera zaintzeko dagoen beharra. "Aurtengoan erleak duen garrantziaz aipamen berezia egin nahi dugu", Erle Lagunak taldetik aditzera eman digutenez. Animalia honek isilpean egiten duen lana aitortu eta haien onurak ikusgarri egin nahi dituzte. "Inoiz baino babes gehiago behar du erakundeetatik eta jendartearen kontzientziaz", nabarmendu digute. Horren isla izan nahi dute antolatzaileen esanetan, iragarri dituzten ekimenek.

## Erleen onurak

Azoka edota txapelketekin batera, berrikuntzekin itzuliko dira aurtengoan. Langile

isil baina ezin eskuzabalagoa den erlea bizimodu osasuntsuagoa izateko nola baliatzen duten ikusi eta probatzeko aukera izango dugu, animaliatxo hau ardatz duten terapietara gerturatzeko azaroaren 26an Potxoenean; besteak beste, eztidun masajeak edota erleen ziztadak ongarri gisa erabiltzen dituztenak. Kontsulta eskainiko dutenen artean herrikide bat egongo da bertan, Angel Jimenez. Masajista eta apiterapeuta da. Erleen ziztadak ongarri gisa baliatzen ditu; esaterako, artiritrisak eragindako sintomak arintzen laguntzeko. Berak hazitako erleak baliatzen ditu horretarako. "29 erlauntza ditut eta hortik hartzen noa pixkanaka" terapia saioetarako baliatzen dituen erleak. Hilaren 26an Potxoenean joateko gonbita

egin du NOAUA! bidez. "Zerbait egin ahal dugun ikustera etor daitezela. Doakoa izango da". Natura bera ongarri gisa baliatzen duten terapeuta hauek gerturatu nahi duenak hitzordua eskatzeko aukera du aurrez, Erle Laguneko helbide honetara idatzita; erlelagunak4@gmail.com

## Gozogintza lehiaketa

Terapiekin batera, azokarik gozoenean barneratzeko aukera izango dugu. Erakusketa ezberdinekin batera, lehiaketek ere tartea izango dute

**"ERLEAK DUEN GARRANTZIAZ AIPAMEN BEREZIA EGIN NAHI DUGU"**

noski. Euskal Herri mailakoa den jaialdi bakar honetako ekimen ezagunenetakoa den ezti onekin batera, gaztetxoan marrazki ederrenak sarituko dituzte eta baita gozogintzako jakiak ere. Adi, txapelketa honetan edonork parte hartu ahalko du. Egin beharrekoa, ezti osagai gisa duen postre bat sukaldatzea izango da. "Hamalau bat jaki aurkeztu zituzten azkenekoz", oroitu digu Erle Lagunak taldeko kide Ana Urdangarinek, "zein baino zein harrigarriagoak diseinu edota kolore aldetik". Aurtengoan ere irudimena sustatzen duen ekimen honetan parte hartzeko deia egin dute. Nahi duenak postrea aurrez sukaldatu eta azaroaren 26an goizeko 9:00etatik aurrera frontoian aurkeztu beharko du.

Hortik aurrera, eztiarekin egingo duten moduan, aurrez ezagunez osaturiko epaimahaiak "zaporea, itxura... baloratuko ditu puntuazio bidez. Denoi animatzen zaituztegu parte hartzera. Polita izaten da ikustea jendea zer sorkuntza lan ederrak egiteko gai den", Urdangarinek nabarmendu duenez. Eguerdian horretan egingo dute sari banaketa.



2019ko Erle Eguna, erlea frontoira heldu zenekoa. Lehen lerroan da Julian Urkiola.

# Erlearen lana aitortu eta babesteko erronka

Erleak ingurunean duen ezinbesteko garrantzia aitortu eta arriskuan den animaliatxoa ezagutu eta babesteko deialdiarekin dator bueltan hiru urteko etenaldiaren ostean, azaroaren 26an ospatuko den 22. Erle Eguna.

Indarberriturik datorren Erle Egunaren atarian gara Usurbilen. Azaroaren 26an ospatuko da, hilabete honetako azken igandean. Hiru urteko etenaldiaren ostean, bueltan datorren urteko hitzordu gozoenaren funtsa azaltzeko eskatu diogunean, berehala adierazi digu "erleak zer lan egiten duen naturan". Aitor-tza hori egin eta ezagutaraztea, horixe datorren 22. Erle Eguneko antolatzaileen erronka nagusia. "Azken finean, polinizaziorik ez balego guk ez genuke ezer izango. Usurbilen garrantzitsuena den Sagardo Egunerako sagarririk ez litzateke egongo erlerik ez balego. Agente polinizatzailea da, ez bakarrik, beste agente asko ere badaude; euria, haizea, euliak, tximeletak... denetarik dago. Baina lan

horren %65- %70 erleak egiten du. Pentsa erlea desagertuko balitz, zertan geratuko ginatekeen", ohartarazi digu Erle Lagunak taldeko eta Gipuzkoako Erleizain Elkarte-ko lehendakari Julian Urkiolak.

## Erleak ohorezko tokia geure iraganen

Balizko desagertu ondorioez galdetu diogu. "Bellarrik ez litzateke izango, jatenik ez, garirik ez, ganadurik ez". Mundua egun ezagutzen dugun moduan, galbidean jarriko luke Urkiolaren esanetan. "Begira zer garrantzitsu den. Denok horretaz jabetuak izan beharko genuke", garai batean bezala. Gogorarazi digunez, garai batean "erlea ohorezko tokietan izaten zuten baserrietan, lekurik goxoene-

tan, hegoaldera begira". Ez zuten zeregin makala.

Egun, sarritan erlea aipatu eta ezta datorrigu burura, animaliatxo honek egiten dugun ekarpen nagusizat jotzen da. Ez da gutxietekoa inolaz ere, "erleak ekoizten du bai" baina denboran atzera eginda, iluntasunean argi egiteko erleen beharrezko laguntza gogorarazi digu Urkiolak. Argizari-az ari da. "Hori kontuan izanda, garrantzia handiagoa eman behar genioke erleari". Egun, kosmetika produktuei

## "PENTSA ERLEA DESAGERTUKO BALITZ, ZERTAN GERATUKO GINATEKEEN"

erreparatzen badiegu, erleez oroitutako behar dugu beti. "Halakorik ez dago argizari-rik gabe". Eta argizari-rik ez, noski, erlerik gabe. Ezinbesteko bidelaguna dugun animalia txiki hau zaindu beharra dago beraz.

## Bertako erlea eta ekoizleak murrizten

Izan ere, mehatxupean da, gainera. Bertako erleaz galdetu diogu erlezaina den Urkiolari. "Geroz eta gutxiago dago. Gorostitxo eztiolan nabari dugu, geroz eta jende gutxiago dator eta datozenek gutxiago ekoizten dute, kopuru txikiagoa". Adierazi digunez, "erle gutxiago dago, liztorrak gehiago". Gertatzen ari dena azaltzeko, "faktore asko daude", azaldu digu Erle Lagunak taldeko kideak. "Batetik, liztorrak zer eragiten duen erlearengan", Urkiolaren esanetan. Horri errelebo falta gaineratu dio. "Adin aldetik zahartzen ari gara asko. Datozen gazteak gustura hasten dira, asmo onez, baina urte batzuk igaro eta horko etorkizunik ikusten ez dutenez... erlezain falta dago", ohartarazi digu.

## Errelebo falta

Aipatu moduan, Gipuzkoako Erlezainen Elkarte-ko lehendakaria da Urkiola. Galdetu diogu ea zer bilakaera izan duen sektorean aritzen diren ekoizleen zenbatekoak. "540 bat izango ginen 2008-10 urte aldera. Gaur egun, 300 izatera ez dakit iritsiko garen", adierazi digu.

Joera hau ez da Gipuzkoa mailakoa soilik; bere esanetan, "erlezain elkarte denak berdin daude, martxa bera daramate. Erreleborik ez dago eta gu zahartzen ari gara, afizioz aritzen gara". Umore ona galdu gabe adierazi digu, "masokistak ere bagara, erleek ziztatzen gaituzte eta oraindik ere haiekin segitzen dugu". Hitz hauek gogorarazten digute zer beharrezko bezain onuragarriak diren erleen ziztadak.



→ Izan ere, murrizten doan bertako erlearen zergatiaz galdetu diogunean, ezinbestean, urteotako ageriko arerioa aipatu beharrean aurkitu gara; liztor asiarra. Baina beste mehatxu bat ere nabarmendu nahi izan du Urkiolak hedabide honi eskainitako elkarriketan; "Varroa". Mundu mailan eragina izaten ari den akaro baten izena duzue.

### Jabetze bidean

Aurrera begirako kezken artean kokatu ditu mehatxuok eta ekoizleen gutxitzea. Baina askoz haratago joanda, kontzientziazioa da sustatu nahi duena. Horretarako antolatu eta ekarri nahi dute plazara bueltan berriz, azaroaren 26ko 22. Erle Eguna. Ekimen honen bidez, "jabetu dadila jendea. Jendeari erakutsi nahi diogu zer dagoen, nora goazen, zer egin genezakeen eta zer ez. Horixe nahi nuke erlezain bezala. Erleen mundu honetan, ni baino adituagoak egongo dira laborategietan. Neure mailan hondar ale batzuk bota nahi nituzke. Hazia erori dadila lursail ederrean".

### "Ez ahaztu, gogoan izan"

Transmisioan ere eragin nahi luke, aipatu mezu hori datozen belaunaldi berriengana helarazi. "Hemen, Udarregi ikastolan egon izan nahiz bizpahiru aldiz haurrekin", oroitarazi digu. Unea, etorkizunari begira jartzeko baliatzen zielela azaldu digu Urkiolak. "Nola entzuten ari zareten, zer gustura, hori ikusita, denok ez baina zuen artean, bakarren bat politikaria izango da etorkizunean" adierazten zien gaztetxoiei. Une hori heltzean, zereginotan aritzean, "izan kontuan gaur entzuten ari zaretena, zer garrantzia duen erleak naturan. Ez ahaztu, gogoan izan", adierazi zien. Une hura oroituta esan digunez, "ez dakit mezu horrek eraginik izango duen, baina esana geratu zen. Kontuan hartuko dutelakoan gogoan izan".



Azoka, txapelketak, terapia erakustaldiak... Osagai gozo asko dakartza azaroaren 26ko 22. Erle Egunak. NOAUA!

### Milaka erle espezieen filmean aktore

Erle Eguneko antolakuntzan lanean ikusiko duzue azaroaren 26an Julian Urkiola, baina baita pantaila handian ere. Bere jarduna nazioartean ezaguna egin den film saritu batean erretratatu dute. "20.000 erle espezie" izenburua darman ikus-entzunezkoaz ari gara, lerrootan mintzagai dugun gaia aintzakotzat hartuta, ahotan hartzeko ezin aproposagoa.

Oscar sarietarako estatuko hautagaien artean lehiaturiko Estibaliz Urresolaren filmean parte hartu du usurbildarrak. Izenburuari erreparatuta, nola ez, afizio eta ofizio duen erlezaintza lanetan agertzen da Urkiola. Esperientzia zoragarria izan dela dio. Uda garaian erleen hazkuntzari lotuak bizi diren ama eta izebarengana doazen emakume bat eta bere hiru seme-alabak ditu protagonista filmak. Gazteotako

**"ZER GARRANTZIA DUEN ERLEAK NATURAN. EZ AHAZTU, GOGOAN IZAN"**

bati Aitor deitzen diote, "baina izen horrekin ez du bere burua ezagutzen... Uda horretan bizitza aldatuko zaie, eta oso desberdinak diren hiru belaunalditako emakume horiek euren zalantza eta beldurrei aurre egin beharko diete". Hortxe filmaren sinopsia.

### "Oso gustura ibili nintzen"

Urkiolak gogoan du nola erlezaintza jarduna ezagutzera etorri zen Urresola eta filma ekoizteko asmoa aipatu zion eta parte hartzeko gonbita egin ere bai. "Oso gustura ibili nintzen. Grabazio lan handiena Laudion (Araba) egin genuen, mendi aldean ere bai, hemen, Ereñotzun". Bidasoa inguruetan baita. Apirilean zinemetan estreinaturiko ikus-entzunezkoa egun plataformetan ikus daiteke. Hainbat sari irabazi ditu zinema jaialdi ezberdinetan. "Mundu osoan dabil bueltaka zuzendaria", aipatu digu Urkiolak.

**"20.000 ERLE ESPEZIE" FILM SARITUAN PARTE HARTU DU JULIAN URKIOLAK**

## 22. Erle Eguna

**Azaroak 26, igandea**  
**09:00-10:00** Ezti eta gozogintza txapelketetarako jakien bilketa.

**Goizean, Potxoenean:** ezti oinarrituriko terapiak doan probatzeko aukera.

### 11:00-14:00 artean plazan:

- Azoka, postuetako salmenta.
- Erakusketak Sutegin: erleak, ezti ontziratzekeo prozesua, Marrazki Lehiaketako lanak...

**13:30** Sari banaketa: Euskal Herriko 22. Ezti Lehiaketako eta gozogintza nahiz marrazki txapelketetako irabazleak nortzuk diren jakinaraziko dute.

**Antolatzailea:** Erle Lagunak.



Sohütako ikastolaren eraikuntzan usurbildar askok hartu zuten parte. "Jose Luis Arrastoa zinegotzi zela, udal brigadako hainbat lagun joan ziren laguntzera, kamioi eta guzti", Lontxo Zubiriak azaldu digunez.

# "19 urte daramatzagu Zuberoako ikastolen aldeko saskiak saltzen"

**LONTXO ZUBIRIA** NAFARTARRAK TALDEKO KIDEA

Zuberoako ikastolek 50 urte bete dituzte. Saskien kanpainak berriz, 20 urte. Urteurren biribilak ospatzeko, Nafartarrak taldeak jai bat antolatu du azaroaren 25erako.

**Usurbildar talde batek, Euskal Herriko beste batzuekin batera, Sohütako ikastola berriaren eraikuntzan hartu zuen parte. 90eko hamarkadaren erdialdean izango zen. Nola gogoratzen duzu garai hura?**

Errefuxiatuak zirela eta ez zirela, Usurbildik beti joan izan da jende bat Zuberoara. Gainera, lurralde liluragarri bat izan da guretzat. Testuinguru horretan, Dominique Agergaray ezagutu genuen, anaiaren bidez ezagutu ere. Muskildarra jaiotzez, Urdiñarbera ezkondu zena, eta Hegoaldea oso ondo ezagutzen zuen pertsona. Konexio berezi bat sortu zen gure artean. Garai hartan, prefabrikatutako geletan zeuzkan bere

bi alabak. Halako batean, bere deia jaso genuen, zerbait handia egin behar zutela esanez. "Apustu handi bat egitera goaz. Ikastola eraiki behar dugu eta laguntza beharko dugu". Orduan, Arrasate Euskaldundu Dezagun elkartearen ere baziren zuberotar batzuk, eta haiek bilkura bat antolatu zuten. Usurbildik lagun batzuk bertaratu ginen.

**Aitzaga elkartearen ordezkatzuz, ezta?**

Hori da. Aitzaga sortu berria zen eta Aitzaga Kultur Elkartearen baitan, hiru lagun ari ginen gai hauen bueltan: Joseba Berriozabal, Joxe Mari Irazusta eta hirurok. Arrasatera joan ginen eta horrela hasi

zen gure arteko harremana estutzen. Multzo txiki bat ginen baina instituzioetatik diru bat jasotzeko esperantza ere bazuten zuberotarrek.

**SEASKAKO INTEGRAZIO BATZORDEAREN ANTOLATZEN DUTE URTERO URDIÑARBEN. "IAZ 180 LAGUN BATU ZIREN"**

**Oker ez bagaude, Sohütako ikastola eraiki ahal izateko 500.000 euro bildu behar ziren.**

Apustua fuertea zen, bai. Familia gutxi ziren eta ezinezkoa zitzaien ahalegin osoa euren gain hartzea. Arrasateko bileraren ondoren hasi ginen Zuberoakoekin harremanak estutzen.

Bonuak eta horrelakoak saltzen genituen eta halako batean zorte kolpe bat izan genuen. Sagrario Aleman euskaltzainaren bi anaiek ezta egiten zuten. Ezti kopuru bat eurek saltzen zuten, beren gastuei aurre egiteko, baina beste kopuru bat euskalgintzako egitasmoak sustatzeko ematen zuten.

Euskal Herria txikia izanda, nondik eta handik, gure asmoaren berri izan zuten eta 300 kilo ezta eskaini zizkiguten. Etiketa berezi bat inprimatu genuen eta 300 horietatik 100 kilo zuberotarrei eman genizkien, "kopuru hau zuekudeatu, eta bestea guk kudeatuko dugu". Bonuak zirela, ezta zela... Diru asko bildu zen eta horren ondoren, hara joaten ginenok bagenuen eraikuntza lanen berri. Jose Luis Arrastoa zinegotzi zela, udal brigadako hainbat lagun joan ziren laguntzera, kamioi eta guzti. Harreman polita sortu zen hango obrako koordinatzailearen eta hemendik lanera joandakoen artean.

**Geroztik hona, Zuberoako ikastolen aldeko saskien salmantan parte hartzen duzue, Seaskako Integrazio Batzordearen aldeko sagardotegi-afaria antolatzen duzue Urdiñarben...**

Hala da. Hasiera-hasieran, 40-50 lagun baino ez ginen elkartzen sagardo-afarian. Baina azken urteotan jende asko etorri da. Txartel kopurua mugatu behar izan zuten iaz, denentzako tokirik ez zegoelako. 180 lagunentzako izan zen iazkoa eta txartel denak agortu ziren.

**Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako ikastoletan eskolatuak dauden ahalmen urriko haurren**

**gurasoek osatzen dute Seaskako Integrazio Batzordea. Zuek presatzen duzuen sagardotegi-afarian jasotzen den dirua batzorde honi laguntzeko izaten da.**

Hori da. Arrain-zopa nahi beste izaten da, bakailao tortilla eta txuleta ere nahi adina ematen da, sagardoa libre... Arrakasta handia du eta oso giro polita sortzen da.

#### **Bezperatik joaten zarete.**

Usurbildik taldetxo bat joaten gara ostiral arratsaldean, laupabost lagun. Larunbatean, goizeko 9:00ak hasten gara arrain-zoparekin. Afariko jan-edatekoa guk eramaten dugu eta sukaldari lanak ere guk egiten ditugu. Larunbatean beste hainbat lagun etortzen dira lanera. Urdiñarbeko Udalak areto handi bat du eta hantxe egiten da sagardotegi-afaria.

Trukean, lotokia jartzen digute beti. Urdiñarben bertan bada kanping bat eta bungalow batzuetan egiten dugu lo. Gure estantzia bere gain hartzen dute eta guk lana jartzen dugu, eta materiala.

**Zuberoako ikastolekin ez ezik, Urdiñarbeko herriarekin ere harreran berezia du Usurbilek.**

Musika Egunaren aitzakian, hemengo dantzariak eta hemengo trikitilariak joan izan dira Urdiñarbera.

**Zuberoako ikastolen mugimenduak 50 urte bete ditu eta saskien kanpainak 20. Zuek hasiera hasieratik lagundu duzue saskien salmentan, ezta?**

19 urte daramatzagu saskiak saltzen. Bigarren edizioan hasi ginen gu. Zarautz aldean ere gu aritzen ginen garai batean, baina hango ikastolak bere bidea hartu du eta zuzenean kudeatzen dute orain.

Kanpaina honetan, talde antolatua Basaurin, Arrasaten, Usurbilen eta beste herriren batean daude. Gainontzekoetan ikastolek bideratzen dute salmenta. Aitor Atxega adibidez, Usurbilgoarekin



1996an egin zen Zuberoako ikastolen aldeko lehen diru biketa. "Kanpaina biribiltzeko, egun osoko jai bat antolatu genuen. Egun ederra pasa genuen".



Itxaro Borda Seaskako lehendakaria zen garai hartan. Joseba Berriozabalen eskutik jaso zuen bildutako diruaren "txekea". Aitzagan egina dago argazkia.

koordinatuta aritzen da eta Villabona aldean eta Zaldibia aldean saltzen ditu saskiak.

**Online egiten da orain salmenta baina batzuk oraindik nahiago dute zuen bitartez erostea.**

Saskia web orrian erosten duenak, jasotzeko tokia zehaztu beharko du. Eta Usurbilgo

**ZUBEROAKO IKASTOLEN ALDEKO SASKIAK BOGAN DIRA. "1.200 SALTZEN ZIREN DUELA URTE BATZUK. GAUR EGUN 2.200 SASKIREN BUELTAN DABILTZA"**

kasuan, NOAUA! Kultur Elkartea edo Ikastola hautatu ditzake.

Guri zuzenean eskatzen dizkigutenak guk geuk banatzen ditugu. Laupabost lagun aritzen gara horretan baina egia da jendea hasi dela zuzenean web orritik eskatzen eta ondo dago, hartara ez dugu diruarekin batetik bestera ibili behar. Gustuko dugu zuzeneko harrereana, baina jendeak zuzenean web orritik eskatzen badu, guri diruarekin ibiltzeko kontu hori kentzen digute.

**Aurten, ohiko ekimenez gain, ospakizun bat iragarri duzue azaroaren 25erako.**

Udarregi ikastolan harrera moduko bat egingo diegu zuberotarrei. Eguerdi partean, Usurbilgo Kantu Taldekoen kantujira irtengo da eta arratsaldean kontzertua antolatu dugu Sutegin.

## **Hiru saski aukeran**

### **Pettarra (50 euro)**

Ahate gibel berrosatua, ezti, ardi gazta kilo, bixkotx gatzatuak, pastak.

### **Arbaila (57 euro)**

Eztia, bixkotx artizanalak, kilo erdiko bi gazta zati, bixkotx gazituak, erreximেন্টa, tisanak, pastak.

### **Basabürüa (68 euro)**

Xerri pate, bixkotx artizanalak, ardi gazta kg., xahalki axoa, lukainka idorra, pastak.

### **Epea, azaroak 26**

Azaroaren 26an amaituko da eskaerak egiteko epea. NOAUA Kultur Elkartearen egoitzan eska daiteke, edo online, ikaskoli.eus web orrialdean.

Banaketa abenduaren 15ean hasiko da.

## **'Zuberoako ikastolek 50 urte' jaialdia**

### **Azaroak 25, larunbata**

11:30 Udarregi Ikastolan ongi etorria eta harrera Zuberoako ordezkarietara.

12:00 Kale-jira herrian zehar Kantu-jirakoekin, Mikel Laboa plazaatik abiatuta.

18:00 Ikuskizuna Sutegin. Mixel Etxekopar eta Jean Kristian Galtzetaburu, bertsolariak, Udarregiko ikasleak, Orbeldi.

Sarrera: 5 euro (egunean bertan edo aurrez, Lizardin).

Antolatzaileak: Nafartarrak, Kantu Taldea, Orbeldi.



Argazkiko korrikalariek giro ederrean abiatu zuten lasterketa. ARGAZKIA: JOANA LERTXUNDI, INSTAGRAM

# Aspaldiko parte hartze handiena Behobia-Donostian

Guztira 75 herrikidek amaitu zuten aurreko igandeko lasterketa. Beste bost lagunek ere eman zuten izena.

Guztira 75 herrikidek parte hartu zuten aurreko igandeko lasterketan. 'Usurbil', 'Aginaga' eta 'Zubieta' hitzak antolatzaileen web orriko sailkapeneko bilatzailean sartuta agertu zaigun zerrenda duzue segidakoa.

## Usurbil

Xuban Errazkin Perez 01:13:07  
 Iñaki Gerica Juan 01:14:51  
 Beñat Bereziartua 01:17:57  
 Irati Larrañaga Matxain 01:23:32  
 Ander Aisa Bengoetxea 01:25:50  
 Jon Tapia Lizarraga 01:26:45  
 Xabier Izeta Aramendi 01:26:55  
 Ander Orena Irureta 01:27:32  
 Iñigo Sasiain Garcia 01:28:48  
 Imanol Plaza Ces 01:31:33  
 Tito Izaguirre Godineau 01:31:38  
 Ekhi Arrieta del Pico 01:31:56  
 Rosa Uribe Navarro 01:33:11  
 Salvatore Arruti Aramburu 01:34:29  
 Oliver Garcia Linares 01:34:31  
 Oinatz Toledo Zabala 01:35:34

Unax Lasa Etxeberria 01:36:33  
 Julen Larrañaga Balerdi 01:36:33  
 Juan Alberto Roman Carro 01:37:40  
 Noemi Santamaria Melero 01:37:41  
 Xabier Aranburu Leiva 01:38:20  
 Jokin Zubiaur Blasco 01:39:13  
 Ainhoa Larrañaga Jaio 01:39:28  
 Borja Chamorro Navarro 01:40:02  
 Sergio Garcia Sierra 01:40:09  
 Maximo Garcia Sanchez 01:40:09  
 Eli Eizagirre Bruño 01:40:11  
 Oinatz Iparragirre Arregi 01:41:51  
 Aitor Vicente Palos 01:41:54  
 Eneko Portu Irasuegi 01:44:03  
 Asier Iruretagoiena 01:46:16  
 Leire Samsó Usandizaga 01:46:20  
 Maitane Eizagirre Bruño 01:48:10  
 Jon Gumbre Urta 01:48:15  
 Igor Astiazaran Barreras 01:48:18  
 Julen Lazkano Iturrioz 01:48:46  
 Julen Elisazu Lertxundi 01:49:23  
 Iñaki Etxebarria Orbegozo 01:49:26  
 Lara Guerra Montes 01:49:32  
 Sergio Montes Guerra 01:49:33  
 Alfonso López García 01:49:51  
 Jon Alejo Toledo 01:51:22

Aroa Arruti Castresana 01:51:36  
 Aloña Pulido Orbegozo 01:51:37  
 Maialen Esoain Peña 01:51:37  
 Kristina Bernal Etxeberria 01:52:46  
 Maddi Esnaola Lizaso 01:52:48  
 Mikel Roura Arrillaga 01:52:53  
 Pablo Roura Martinez 01:52:54  
 Ricardo Campos Silva 01:53:21  
 Jean Francisco Toral 01:54:52  
 Axier Dominguez Prieto 01:55:29  
 Miren Aizpea Unsain 01:56:18  
 Lucia Ucar Gonzalez 01:57:18  
 Ainhoa Macazaga Ezkurra 01:58:17  
 John Fredy Giraldo Zapata 01:58:48  
 Xabier Zubeldia Urkola 01:59:41  
 Ane Mujika Beloki 01:59:45  
 Itziar Irazusta Larrea 01:59:46  
 Joana Lertxundi Beristain 02:04:26  
 Erramun Erro Aizpurua 02:04:26  
 Arantza Esnaola Hernaiz 02:06:20  
 Beatriz Irasuegi 02:09:42  
 Luisa Rodriguez Moreno 02:09:43  
 Garazi Mekolalde Loinaz 02:12:32  
 Javier Martinez Manso 02:15:32  
 Eneko Garcia Oyarzabal 02:16:31  
 Maren Sasiain Ortuñe 02:16:40  
 Pello Sasiain Martinez 02:16:40

## Zubieta

Xabier Aizpurua Inchausti 01:31:44  
 Unai Zaldúa Vega 01:38:22  
 Emilio Audikana 01:39:47  
 Javier López-Jacoiste Ortíz 01:46:38  
 Unai Etxeberria Olaiz 02:03:55

## Aginaga

2879-Ander Aristegi 01:29:11  
 Iturria: www.behobia-sansebastian.com

## Futbola Haranen

### Azaroak 18, larunbata

- 09:00 Infantil mutilak: Usurbil FT-Billabona FKE
- 10:30 Kadete neskek: Usurbil FT B-Oiartzun KE B
- 12:15 Kadete mutilak: Usurbil FT B-Arrupe Chaminade
- 15:30 Gorengoen jubenilak: Usurbil FT-Urnieta CD
- 17:45 Gorengoen mutilak: Usurbil FT-Axular

### Azaroak 19, igandea

- 10:00-12:00 Futbol Eskola

## Pilota partidak

### Azaroak 17, ostirala

#### 17:45 Usurbilen:

[Infantilak, Gipuzkoako errendimentu txapelketa.](#)  
[Eskuz banaka \(3. mailan\):](#)  
 Pagazpe (Oliva)  
 Alde Zaharra (Rey)

Pagazpe (Usabiaga)

Alde Zaharra (Salaberria)

### Azaroak 18, larunbata

#### 11:00 Usurbilen:

[Infantilak, Gipuzkoako errendimentu txapelketa.](#)  
[Eskuz banaka \(2. maila\):](#)  
 Pagazpe (Alejo)-Mundarro

[Kadeteak: Gipuzkoako txapelketa.](#) [Buruz buru eskuz \(2. mailan\):](#)

Pagazpe (Alejo)-Behar Zana

[Kadeteak: Gipuzkoako txapelketa eskuz binaka \(2. maila\):](#)  
 Pagazpe (Aburuza-Pagola)  
 Murumendi

## Eskubaloia Oiardon

### Azaroak 18, larunbata

#### Oiaro kiroldegian:

[10:00 Infantil neskek:](#)  
 Usurbil KE B - Pulp KE  
[11:15 Infantil mutilak:](#)  
 Usurbil KE A - Mek Eibar A  
[17:00 Senior mutilak:](#)  
 Saizar Usurbil KE - Tolosa B

## MERKATU TXIKIA

## ETXEBIZITZAK

## ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Alokairuan hartzeko oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki edo estudio baten bila gabilta. Adin nagusiko bikote bat gara. 627184674

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Kokapena eta sarbide ona. 670410273.

## SALGAI

## MOTORRA

## SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. Harremanetarako: 652 765 583.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiaren zaintzadun etxebizitzan auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Umeak zaindu, eskolara eraman edo etxekolanak egiten lan egingo nuke. Goizez edo arratsaldez ari-

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

tzeko prest. Usurbilgoa eta euskalduna. 616273785.

Datorren ikasturtean haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabilta. 12:00-14:00, astelehenetik ostiralera. Kotxea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa. 617792736

Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. 943 366 710

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Esperientzia daukat. 695 18 41 79

Soziosanitario titulua dut. Jende nagusia zaintzeko prest, orduka, edo gau eta egun. Harremanetarako: 632 360 758.

Manikura egiteko zerbitzua eskaintzen dut. Hartu zure hitzordua whatsapp bidez: 611282203.

Ikasturtean zehar haurrak zaintzeko prest nagoen gazte usurbildar bat naiz. Umeekin esperientzia daukat. Ordu-tegian malgutasuna. Telefono zenbakia: 688 805 307.

## BESTELAKOAK

Azaroak 2an Errekatxikin bi giltza topatu ditugu. Galdu badituzu Udaltzainetan utzi ditugu.

Etxean egindako gozogintza enkarguz eskatu dezakezu @deliciascreativasdey / 624356763 (Deynis).

## TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udalzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Pobxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 16	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Ostirala, 17	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 18	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Igandea, 19	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Astelehena, 20	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Astearte, 21	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Asteazkena, 22	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Osteguna, 23	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Ostirala, 24	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Larunbata, 25	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Igandea, 26	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67

## GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZUPURU ODRIOZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

## Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

## HILDAKOAK



**Carolina Wellman Arroyo**  
Azaroaren 7an hil zen, 69 urterekin.



**Julen Lejardi Araolaza**  
Azaroaren 8an hil zen, 20 urterekin.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

## Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

## Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## LARUNBATA 18

**TXOKOALDE** Magia ikuskizuna eta kontzertua

17:00 Txoborro magoaren emanaldia.  
19:30 Zallek taldearen kontzertua.  
Antolatzailea: Txokoargi elkarte.

## IGANDEA 19

**TXOKOALDE** Ogia egiteko ikastaroa Txokoalden

Izen-ematea, 17:00-19:00 artean, 619 591 849 telefono zenbakian.  
Prezioa: 10 euro.  
10:00-12:00 Txokoargin.

**USURBIL** "Hiru kortse, azukre asko eta Brandy gehiegi" antzezlana

Kamikaz Kolektiboaren antzezlana. Sarrera doan.  
Gonbidapena usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri.  
19:00etan Sutegin.

## ASTEARTEA 21

**USURBIL** Antzerki Topaketak

Zumarragako eta Oñatiko antzerki taldeak. Antolatzailea: Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkarte.  
16:30ean Sutegin.

**USURBIL** Solasaldia

"Vuelta al país de Elcano" liburuari buruzko hitzaldi-solasaldia.  
19:00etan Udal liburutegian.



Txoborro magoak 'Gezur gehiegi' magia ikuskizuna eskainiko du larunbatean.

## Asteburupasa Txokoargin

**Azaroak 18, larunbata**

- Txokoargi elkarte:
- 17:00 Txoborro magoa.
- Zehaztasunak: "Den-denak gezurtiak gara baina Txoborrok gezurrak ogibide bihurtu ditu. Poligrafo bati esker, gure barnean dugun gezurti ezkutua argitara emango du. Ikusizunean zehar, ikusle gosoa hipnotizatuko du, ikusle batek bere dirua galduko du eta munduko piztiarik arriskuetsuenen itzalak agertuko dira.

- Ala ez. Baliteke dena gezurrak izatea. Gezur gehiegi".
- 19:30 Zallek, kontzertua.

**Azaroak 19, igandea**

- Txokoargi elkarte:
- 10:00-12:00 Ogia egiteko ikastaroa.
- Zehaztasunak: "Idoia era-kutsiko digu etxean ogia egiten".
- Izen-ematea: aurrez, 17:00-19:00 artean 619 591 849 telefono zenbakian.
- Prezioa: 10 euro.

## Santa Zeziliren omenez

Zumarte Musika Eskolak kalejira eta kontzertua antolatuta ditu azaroaren 23rako. 18:00etan, 'Musikalean' kalejira egingo da talde instrumentalarekin, eta 19:00etan kontzertua Sutegiko auditoriumean instrumentu eta talde desberdinekin. Sarrera: doan.

## 'Udazken betea' udal liburutegian

**Azaroak 15, asteazkena**

- 18:15 Irakurketa solasaldia. 8-11/12 urtekoen zuzendua. Mintzagai: Marixor liburua. "Yolanda Arrieta idazlea gure artean izango da". Liburua eskuragarri duzue Sutegi udal liburutegian.
- Sarrera doan.



Yolanda Arrieta.

**Azaroak 21, asteartea**

- 19:00 "Vuelta al país de Elcano" liburua-ren inguruko hitzaldi-solasaldia Ander Izagirre idazlearen eskutik. Liburua eskuragarri duzue Sutegin.

**Azaroak 28, asteartea**

- 19:00 "80 amandre" helduentzako ipuin kontaketa saioa Udal Parekidetasun Sailaren eskutik.

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
9:00-13:30  
ASTEARTETIK LARUNBATERA  
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22  
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

USURBIL DÖNER KEBAB  
843 675 265  
603 609 183  
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL\_DK  
Borda Berri Kalea, 5



# Ofizioen Gida



**URDAINTZI**  
eraikuntzak

ITE-ak

649 43 54 75  
943 36 72 64  
urdaintzi@euskalnet.net

·ERAIKUNTZAK ·OBRAK  
·BERRITZE LANAK

**ARANKA**  
BERRIKUNTZAK

·Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak  
·Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa  
·Igeltseritza orokorra

Tel: 606 37 21 05 USURBIL

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

Telefona  
693 059392

e-posta:  
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behea, Lasarte-Oria

**ITZIRA**  
ERAIKUNTZAK

·gremioen koordinaketa  
·berritze lanak  
·sukaldeak  
·komunak

943 530 337  
607 119 313

errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

**IRUARKAITZ**  
ERAIKUNTZAK, S.L.

·FATXADAK ETA TEILATUAK  
·ERAIKUNTZAK ·BARRUKO BERRIKUNTZAK  
·URALITA KENTZEKO ENPRESA  
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA

**GAR**  
GRUPO MONROY

**BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK**

943 53 72 38 - 628 45 78 39 - 628 91 72 15  
reformas@reformasmonroy.com

NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL



**Antonio URRUZOLA**  
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415  
Astasuain Industrialdea, 3

**BARRENETXE**  
Salsamendi Arregi, Iñaki  
AROSZTEGIA

943 362 664  
Barren Etxe kalea ZUBIETA

**J. R. IBARGOEN S.L.**  
ZURGINTZA-SUKALDEAK  
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jr.ibargoien@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



**ARGILAN**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859  
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



**antenas Telemar**

943 55 33 99  
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



**APARICIO**  
DEKORAZIOA ETA  
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943  
Puntapax, 3 - 3.B 20170 USURBIL



**Enrique Alonso**  
ITURGINTZA  
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak  
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa  
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

**Iñaki Iturgintza**

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA  
ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

**Zuri arrain**  
iturgintza

Tel: 678 45 31 48 • 943 651 465  
zuriarrainiturgintza@gmail.com

**Rafa**  
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO MANPARAK  
· KONFINDATZAZKO GREMIOAK · KOMUNENKO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 behea • © 943 36 80 04



**ANORGA TXIBI S.L.**  
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak  
· beira bikoitza · segurtasun beirak  
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45  
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



**maiz**  
hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK  
· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com ( ONLINE DENDA ERE)  
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

BULTZA!



EROSLE TXIKIEN  
IRAULTZA

AZAROAK

20



ABENDUAK

2

# LORTU

## ZURE EROSKETA

# BONUA!

10€-KO  
DESKONTUA!

ORDAINDU  
20€

ETA ESKURATU  
30€

### NON EROSI BONOAK?

ONLINE  
GERTUAGO.EUS



POTXOENEA  
AZAROAREN 22  
22 DE NOVIEMBRE  
12:00 -14:00

BEZERO BAKOITZAK GEHIENEZ 3 BONO EROSI AHAL IZANGO DITU

hurbilago

Usurbilgo  
Udala  
gertu@go

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO  
TURISMO, MERKATARIETZA ETA KONTSUMO SAIA DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO